



EUSKARA JENDEA

Mundua osatzen

B MAILA ikaslearen kaiera

“EUSKARA JENDEA” DOKUMENTAL SORTA

Zein izan da gure hizkuntzaren ibilbidea historian zehar? Nola bizi izan du gure jendeak euskara? Nolako eragina izan dute hurbildu zaizkigun herri eta kultura desberdinek?...

“Euskara jendea” dokumental sortak galdera horien eta beste hainbaten erantzunak eskaini nahi ditu. Horretarako, Xamarrek 2006an Pamiela etxean argitaratutako izenburu bereko liburua hartu du abiapuntu, eta liburuak bezala, modu ulerterraz eta atseginean gure hizkuntzak eta gure jendeak eskuz esku egin duten ibilbide luzera hurbiltzea du helburu.


Lana 45 minutu inguruko sei dokumentalek osatzen dute:

- I. HISTORIAREN ATARIAN
- II. ERROMAKO INPERIOAN
- III. ANIZTASUNAREN BIDEAN (ERDI AROA)
- IV. MUGETAN GAINDI (ARO MODERNOA)
- V. GERREN ARTEKO PIZKUNDEAN (1800–1945)
- VI. MUNDUA OSATZEN

KAIER DIDAKTIKOAK

Kaier didaktiko hauen helburua “Euskara jendea” dokumental sorta B eta C mailako euskara ikasleei hurbiltzea da. Horretarako, dokumentalen kontakizunei jarraitzeko eta aipatutako mailei dagozkien hainbat eduki lantzeko jarduerak eskainiko dira kaieretan. Jarduera horiek bai banaka (ikasleak bere kabuz), bai taldeka (euskara eskoletan) erabiltzeko aukera eskainiko dute.

KAIERAK BANAKA ERABILI

Nahi izanez gero, kaier hauek bere kabuz erabili ahal izango ditu ikasleak, irakaslearen edo ikaskideen laguntzarik gabe. Horretarako ariketa bakoitzaren enuntziatua arretaz irakurtzea eta jarraitzea besterik ez dago, “talde lana” sinboloa duten atalak alde batera utzita (.

Ariketen erantzunak lan bakoitzaren azken orrian aurkituko ditugu.

MUNDUA OSATZEN

“Mundua osatzen” dokumentalarekin, Euskara Jendea sortako azken lan honekin, amaiera emango diogu pausoz pauso historian zehar egin dugun ibilbideari. Eta azken bidaia honek, pasa den mendearen erdialdetik gaur egun arte eramango gaitu. Dokumentalaren laguntzaz Gerra Zibila eta II. Mundu Gerraren ondoko urteei, Hego Euskal Herrian Frankismori eta trantsizioari, aldaketa instituzionalei, eta teknologia berrien etorrerari erreparatuko diegu, eta, jakina, horiek guztiek euskal munduan utzi duten urratsari.

AURKIBIDEA

Dokumentala ikusi aurretik

IKASTEKO PRESTATZEN

1. “Nik uste nuen...; orain uste dut...”? (I) 4. orr.

Helburua: Dokumentalaren ikusketa prestatu eta girotu, aurrezagutzak eta usteak gogora ekarriz.

Dokumentalaren ikusketa

INFORMAZIO INTERESGARRIAREN BILA

2. Oharrak hartuko ditugu 7. orr.

Helburua: Dokumentala ikusi bitartean arreta interesatzen zaigunean jarri.

Dokumentala ikusi ondoren

3. “Nik uste nuen...; orain uste dut...”? (II) 8. orr.

4. Alde onak eta alde txarrak 9. orr.

Helburua: Dokumentalean ikusitakoaz eta ikasitakoaz hausnartu.

IDAZLANA

5. Euskalduna naiz eta 10. orr.

Helburua: Idazlanak planifikatzeko teknika bat erabiltzen trebatu.

IDAZLANEN BERRIKUSKETA

6. Akats larririk ez, mesedez! 13. orr.

Helburua: Idazlanak berrikusteko teknika bat ezagutu eta erabili.

Ondorioak eta auto-ebaluazioa 16. orr.

Erantzunak 17. orr.



Dokumentala ikusi aurretik: Ikasteko prestatzen

Ikasteen zerbait aldatzen da gure buruan. Ikasi aurretik, zerbait dakigu, usteren bat dugu...; ikasi ondoren, genekien hori osatu edo zuzendu egiten dugu; usteak konfirmatzen edo aldatu egiten ditugu... Aldaketa bat bizi dugu. Bada, ikasi aurretik uste genuena eta ikasi ondoren uste duguna alderatzea, modu eraginkorra izan daiteke ideia berriak barneratzeko.

1. “Nik uste nuen...; orain uste dut...” (I)


“Mundua osatzen” dokumentala XX. mendearen erditik gaur arte euskara jendeak egin duen ibilbideaz mintzo zaigu: Frankismoaz, 1975etik aurretiko trantsizioaz, teknologia berrien zabaltzeaz... Baina garai horiek guztiak ez dira zuretzat ezezagunak. Seguru guztiei buruz zerbait entzun duzula, irudiren bat duzula. Eta horrek dokumentalak eskainiko dizuna hobeto ikasten lagunduko dizunez, zera proposatzen dizugu:


1.1 Dokumentala ikusi aurretik, ondoko fitxako galderak irakurri eta dakizuna, entzun duzuna edota irudikatzen duzuna jaso orrian. Gogoratu helburua ez dela asmatzea, buruan dugun ideia gogora ekartzea baizik. Horregatik, ahal beste galderari erantzutea komeni den arren, baten batekin arazoak badituzu, erantzun barik utz dezakezu lasai asko.

1.2 Zeure uste edo ezgutza horiek lehenengo zutabeen jaso: “Nik uste nuen...” atalean. Bigarren atala zuri itxi behar dugu dokumentala ikusi ondoren betetzeko.

Nik uste nuen...	Orain uste dut.. (Dokumentala ikusi ondoren betetzeko)
1. Franko garaian, hegoaldean, nola irudikatzen duzu euskal mundua?	
1.1. Bazegoen euskal kulturarik? Nolakoa?
1.2. Euskarak bazuen lekurik gizartean eta eskolan?

Nik uste nuen...	Orain uste dut... (Dokumentala ikusi ondoren betetzeko)
5. Teknologia berriak izugarritzko zabalkundea izan dute azken hamarkadetan.	
<p>5.1. Kontuan hartu behar dira teknologia berriak hizkuntzaren osasunerako? Euskara teknologia berrietan murgiltzeko zerbait egiten ari ote da?</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p>	<p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p>
6. Euskararen azken urteotako bilakaera baloratu beharko bazenu...	
<p>6.1. Euskararen aldeko ahalegin nahikoa egiten ari dela esango zenuke?</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p>	<p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p>
<p>6.2. Nolako aurrerapausoak eman dira, zure ustez, azken hamarkadetan?</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p>	<p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p>
<p>6.3. Bide onean goazela uste duzu, ala aldaketaren bat eman beharko dugu?</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p>	<p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p>

1.3  Elkartu ikaskide pare batekin, eta aurreko laukietan jaso duzuen alderatu: Zer pentsatzen duzue planteatu zaizkizuen kontuei buruz? Iritzi berbera duzue?

1.4  Ikaskideekin solastu ondoren ideia interesgarriren bat jaso baduzu, gorde ideia hori zeure fitxan.

Dokumentala ikusi bitartean: Informazio interesgarriaren bila

Dokumentala ikusi ondoren, geure usteak konfirmatu ala zuzendu egingo ditugu. Baina hori egin ahal izateko, komeni da ikusi bitartean informazioa jasotzea. Horretarako, oharrak hartzea proposatzen dizugu.

2. Oharrak jasoko ditugu

Oharrak jasotzea oso kontu pertsonala da. Hala ere, orain oharrak arrakastaz hartzeko aholku batzuk eskainiko dizkizugu.

1. Hasteko, presta ezazu oharrak jasotzeko orria. Orri zuri bat erabil dezakegu, baita atalka antolatutako orri bat ere. Bigarren mota honetako orria erabiliz gero, arreta hobeto bidera ahal izango dugu, eta bide batez, informazioa antolatuago jasoko dugu. Dagokigun kasuan honelako orria erabil dezakegu:


Frankismoaren garaia.




1975etik aurrerako instituzioak



Herri ekimena




Bertsolaritza




Teknologia berriak



Euskararen bilakaera (diglosia)



2. Orria prest duzula, ikusi dokumentala, eta zerbait interesgarri ikusi edo entzuten duzunean orrian jaso. Ez galdu denbora datuak literal jasotzen, eta ez zoratu gramatikarekin; datua gogoraraziko dizun hitz bakarra edo esaldi laburra jasotzea nahikoa da, eta dokumentalaren haria ez galtzen lagunduko dizu.

3.  Dokumentala amaitu ondoren, alderatu zeure oharrak ikaskideekin, eta osa itzazu.

Dokumentala ikusi ondoren: Zer ikasi dugu?

Eta orain, dokumentala ikusi eta informazioa bildu ondoren, geure aurreko usteen balioa konprobatzeko unea iritzi zaigu. Bat gatoz oraindik geure hasierako ideiekin? Ideiaren bat aldarazi digu dokumentalak? Zerbait interesgarri ikasi dugu?

3. “Nik uste nuen...; orain uste dut...” (II)


Dokumentala ikusita zer ikasi dugun aztertzeko, honela egingo dugu:

- “Nik uste nuen...; orain uste dut...” fitxak (4.- 6. orriak) hartuko ditugu, eta orri horietan emandako erantzunak banan-banan irakurriko ditugu.
- Dokumentala ikustean jaso dituzun oharrak lagun, geure hasierako uste horrekin oraindik bat gatozen ala ez aztertuko dugu:
 - Gai guztiei buruz berdin pentsatzen dugu oraindik?
 - Zerbait aldatu, kendu edo gehituko genuke?
- Dokumentala ikusi ondoren bestela ikusten dituzun puntuak fitxetako bigarren zutabeetan jaso, hau da, “orain uste dut...” zutabeetan.



- Elkartu ikaskide batzuekin eta fitxak elkarri erakutsi eta ondorioak komentatu:

- Zein ideia aldatu duzue dokumentalari esker? Zer pentsatzen zenuten hasieran eta zer orain ?
- Zalantzaren bat geratu zaizue dokumentala ikusi ondoren? Zein?



4. Alde onak eta alde txarrak

“Mundua osatzen” dokumentalari esker, euskarak azken hamarkadetan bizi izan dituen gorabeherak hobeto ezagutu ahal izan ditugu. Urte horietan, geure hizkuntzari eragin dioten denetariko gertaerak, mugimenduak eta jarrerak izan dira, batzuk euskararen mesederako, beste batzuk kalterako.

4.1 Jakin duzuna eta dokumentalarekin ikusi duzuna gogoan, zerrenda itzazu ondoko taulan zure ustez azken hamarkadetan euskarari mesede egin dioten hiru kontu, eta kalte egin dioten beste hiru.

Euskararen mesederako	Euskararen kalterako
1.	1.
2.	2.
3.	3.

Gauden egoeran, ezein kultura
ezein herri ez da inoiz
salbatu beren hiritargoaren
borondate soil onarekin

Puntuok
aldebesteren saiatuko dituen
ezein alderdik,
ezein taldek engainatzen zaitu.

Amaitasuna

Dokumentala ikusi ondoren: Idazlana

“Mundua osatzen” dokumentala Xalbadorren bertso batekin amaitu da, bere iloba Amaia Airek abestua:

Zortearen indarrez munduan ni ere sartu nintzen euskaldun agerien jabe. Frantses edo espainol sortu banintz hobe, gaur ez nuen izanen hoinbertze nahigabe

Bertso honetan Xalbadorrek euskaldun bezala gaurko munduan nola sentitzen den azaltzen digu. Eta zuk nola ikusten duzu gaia? Bada, ariketa honetan horri buruz idazteko eskatuko dizugu: erraza ote da gaur egun euskaldun izatea?



5. Eskalduna naiz eta...

Idazlan hau egiteko, ohiko urratsei jarraituko diegu: esan nahi duguna erabaki, ideia nagusiak aukeratu, ideia horiek garatzeko ideia osagarriak bilatu, dena paragrafoetan antolatuta zirriborroa idatzi, eta zirriborroa berrikusita eta zuzenduta behin betiko testua idatzi.

Baina lana errazteko, urrats batzuk egiten lagunduko dizugu. Has gaitezen.

OHARRA: Testuaren planifikazioa egiteko ikaskide batekin elkar zaitezke eta berarekin batera 1., 2. eta 3. urratsak egin, edota iritzi desberdinak izanez gero, elkarri egiten lagundu.

1. urratsa: Zer idatzi nahi dugun argitu.

“Neure ikuspuntutik gaur egun euskalduna izatea erraza ote den azaldu nahi dut”



2. urratsa: Ideia nagusiak aukeratu.

Nahi izanez gero, ondoko ideia hauek erabil ditzakezu:

1. *Niretzat euskalduna izatea zer den azalduko dut.*
2. *Gaur egun euskaldunok aurkitzen ditugun oztopoak eta abantailak azalduko ditut.*
3. *Nire ondorioak azalduko ditut.*



3. urratsa: Ideia nagusiak adierazteko ideia osagarriak bildu eta antolatu.

Urrats honetan idazlanerako hautatu duzun ideia nagusi bakoitza garatzeko denetariko ideia osagarriak bilatu eta antolatu beharko dituzu: datuak, adibideak, aipamenak... Lan hau honela egin dezakezu:

- Orri zuri bat zatika banatu, eta zati bakoitzaren goialdean ideia nagusi bana idatzi.
- Ideia bakoitzaren azpian, ideia hori garatzeko interesgarri deritzozun edozer idatzi.
- Idatzi dituzun ideia guztiak aztertu, sobera daudenak ezabatu eta aukeratu testuan erabiliko dituzunak.


1. *Niretzat euskalduna izatea zer den azalduko dut.*

2. *Gaur egun euskaldunok aurkitzen ditugun oztopoak eta abantailak azalduko ditut.*

3. *Nire ondorioak azalduko ditut.*

4. urratsa: Datuak elkarri lotuz, zirriborroa idatzi.

Behin esan nahi duguna (ideia nagusiak) eta emango ditugun zehetasunak (ideia osagarriak, adibideak...) argitu ondoren, testua idazten hasiko gara: ideia nagusi bakoitzaren inguruan paragrafo bat idatziko dugu.



A large area of dotted lines for writing, with a hand holding a pen on the right side, ready to write.

5. urratsa: Paragrafoa berrikusi.

Eta lana amaitzeko azken urratsa baino ez dugu falta: idatzi duguna arretaz irakurri, zerbait zuzendu edo aldatu behar dugun aztertu, eta eman behar diren moldaketak emanda testua garbira pasatu. Baina lan honi ekin aurretik, norbere testua zuzentzeko teknika bat ikasiko dugu.

Gorde ezazu zirriborroa, bada, eta egin ondoko orrietako ariketa.

Dokumentala ikusi ondoren: Idalane berrikusketa

Idatzitakoa berrikustea eta zuzentzea, idaztearen ezinbesteko atala da. Testu txukun bat idatzi nahi izanez gero, denok egin behar izango dugu berrikusketa hori, idazlerik trebeenak barne. Idazlanak berrikusteko, baina, modu desberdinak daude, eta ariketa honetan horietako bat ikasiko dugu.


6. Akats larririk ez, mesedez!

Idazlanak berrikusteko teknika bat, kezkatzen gaituzten akats larriei erreparatzea da. Hasteko, akats horien zerrenda beharko dugu; ondoren, idatzi dugun testua arretaz irakurri beharko dugu zerrenda aurrean dugula, eta akats kezagarri horietakoren bat egin ote dugun aztertuko dugu.

Hona hemen larrizat har daitezkeen akats batzuk ez egiteko aholkuak:

1. ADITZAK. Berrikusi idazlaneko aditz guztiak eta...

- Aztertu aditzen subjektuen eta objektuen arteko komunztadurak egokiak diren, hau da, **NOR**, **NORI** eta **NORK** behar bezala jarri dituzun.
- Begira ezazu singular / plural komunztadurak ere ondo idatzi dituzun:
"Gauza **batzuk** esan **nion**"
- Aditzaren aspektua ondo erabili duzun aztertu. Kontuz honelakoekin:
"Bihar zer ordutan **geratzen** gara?"
"Atzo autobusik ez zegoenez, **ezin nuen** klasera etorri."



2. MUGAGABEA. Bila itzazu mugagabea eskatzen dituzten hitzak (zein, zenbait, asko, edozein, zenbakiak...), eta deklinabidea zuzen erabili duzun aztertu.

3. ERE, BAITA, BAITA ERE. Bilatu horrelakoak testuan, eta egiaztatu forma egokia erabili duzun.

zuzen

- Gaur **ere** joango gara?
- Gaur joango gara. Eta bihar? - **Baita**.
- Gaur joango gara, **baita** bihar **ere**.

oker

- Gaur **baita** joango gara?
- Gaur joango gara. Eta bihar? - **Ere bai**.
- Gaur joango gara, **eta** bihar **ere**.

- Gogoratu ere galdegaiaren atzean joan behar duela. Ondo jarri dituzu?

4. KONPLETIBOA ETA ZEHAR-GALDERA. Aztertu -(e)LA, -(e)NIK eta -(e)N behar bezala jarri dituzun.

5. ERLATIBOA. Aztertu erabili dituzun erlatibo guztiak, eta konprobatu:

- Ez duzula konpletiboarekin okertu (Neska bat ezagutu dut Bilbokoa dela)
- Deklinabidea egoki erabili duzula (Etorri denak ez du errurik)

6. LEXIKOA. Testuan erdarakadak dauden aztertu eta, egotekotan, ordeztu.

7. BESTERIK. Kezkatzen zaituen beste akatsen bat bururatzen bazaizu, jaso ezazu hemen:


-


6.1 Bada, orain, aurreko orriko akats larriak gogoan, irakur ezazu ikasle baten idatzi duen testu hau, eta bilatu eta zuzendu egin dituen akatsak. Bat egin ote dugun aztertuko dugu.

Euskara eta mundu digitala

Mundu digitala orain arte ezagutu dugun mundu fisikoari nolabait aldatu egiten du. Hasteko, espazioa desagertzen da. Edonon gaudela ere, komunika gaitzezke. Eta espazioarekin batera, denbora desagertzen da ere. Interneten berdin da non gaudenik, berdin da noiz egiten dugu, gune horiek hor jarraitzen dutelako gu egon zein ez egon.

Mundu digitalak izugarrizko garrantzia du gaur egun, eta argi dago euskara Interneten sartzen ari dela ere. Argi dago euskal komunitatea konprometitua eta aktiboa dela, garaian garaiko erronketara egokitu dela, eta horren adibide bat gehiago besterik ez da red digitala. Horren adibidea da, esaterako, Wikipediak bere hasieratik eduki duela bilakaera; hainbat eta hainbat blogak ere sortu dira euskaraz gai ezberdinen inguruan; eta ikusi besterik ez dago Interneten bertan ematen diren edukien eta zerbitzuen lokalizazioan dagoen gelditu gabeko bilakaera hori.




6.2  Elkartu ikaskide batekin, eta alderatu egin dituzuen zuzenketak.


6.3 Eta amaitzeko, hartu berriro 10. orrian prestatu duzun zirriborroa, aztertu arretaz 11. orriko akats larriei bereziki erreparatuz, eta eman beharreko zuzenketak emanda, testua garbira pasa ezazu.

OHARRA: Akatsei erreparatzeaz gain, ez ahaztu ondoko hauek ere kontuan hartzen idazlana berrikusteko:

- *Idea nagusiak argi geratu dira?*
- *Ideiak modu logikoan ordenatuta daude?*
- *Mezua argi uzteko daturen bat falta da? Zerbait sobera dago?*
- *Testua desitxuratzen duen zerbait dago (errepikapenak, esaldi nahasiak, luzeegiak...)?*
- *Esaldiak modu egokian lotuta daude?*

6.4  Testua planifikatu duzun ikaskideekin elkartu, eta egin dituzuen lanak elkarri erakutsi eta baloratu:

- Zirriborroan nolako zuzenketak egin dituzuen azaldu.
- Geratu zaizkizuen zalantzak argitzen saiatu.

6.5  Guztion artean gaiari buruzko eztabaida egingo dugu:

- Hasieran ikasle guztiek, banan-banan, gaiarekiko zeuen iritziak azalduko dituzue.
- Ondoren, txandak ondo errespetatuz, eztabaida zabalduko duzue.



Ondorioak eta auto-ebaluazioa

Edozein lan egin ondoren, oso garrantzitsua da egindakoa ebaluatzea eta ondorioak ateratzea. Horretarako, orri honetan egin dugun lanari erreparatuko diogu, ikusi dugun dokumentala baloratuko dugu, eta egindako ariketarekin ikasi duguna aztertuko dugu.

Dokumentalari buruzko iritzia.

1. Dokumentala zure gustukoa izan da?..... **1 2 3 4 5**

- Zergatik?

2. Gaia interesgarria iruditu zaizu? **1 2 3 4 5**

- Dokumentalak eskaini dizkizun hiru ideia interesgarri aipatu.

a.

b.

c.

Ariketan ikasitakoaren balorazioa.

3. Idazlana planifikatzeko teknika

- Teknika interesgarria iruditu zaizu testuak hobeto idazteko? **1 2 3 4 5**

- Zergatik?

4. Idazlanak berrikusteko teknika

- Teknika lagungarria iruditu zaizu idazlanak berrikusteko eta zuzentzeko? . **1 2 3 4 5**

- Zergatik?

Erantzunak

6.1. ariketa: Akats larririk ez, mesedez!

Testua zuzenduta:

Euskara eta mundu digitala

Mundu digitalak orain arte ezagutu dugun mundu fisikoa nolabait aldatu egiten du. Hasteko, espazioa desagertzen da. Edonon gaudela ere, komunika gaitzke. Eta espazioarekin batera, denbora ere desagertzen da. Interneten berdin da non gauden, berdin da noiz egiten dugun, gune horiek hor jarraitzen dutelako gu egon zein ez egon.

Mundu digitalak izugarritzko garrantzia du gaur egun, eta argi dago euskara Interneten sartzen ari dela ere. Argi dago euskal komunitatea konprometitia eta aktiboa dela, garaian garaiko erronketara egokitu dela, eta horren adibide bat gehiago besterik ez da sare digitala. Horren adibidea da, esaterako, Wikipediak bere hasieratik eduki duen bilakaera; hainbat eta hainbat blog ere sortu dira euskaraz gai ezberdinen inguruan; eta ikusi besterik ez dago Interneten bertan ematen diren edukien eta zerbitzuen lokalizazioan dagoen gelditu gabeko bilakaera hori.